

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nasuvinsako etxebizitza babestuen erroldako izen-emateen % 76k alokairua aukeratzen du

5.364 daude izena emanda erregistroan; oraindik zabalik dago irailaren 1ean egingo den esleipen-prozesurako

Viernes, 22 de agosto de 2014

[Nasuvinsa](#) enpresa publikoak Nafarroan etxebizitza babestua eskatzen dutenen errolda bakarra arazteko bigarren prozesua gauzatu du, iraungita dauden eskaerak baztertzeko, hau da, izena eman zuten egunetik zenbatzen hasita bi urteko epean berritu ez direnak. Eskaerak automatikoki berritzen dira daturen bat aldatzen denean.



Laster esleituko diren Lezkairuko (Iruña) etxebizitzaren infografía

Guztira 302 izen-emate baztertu dira, titularrek ez dutelako luzatu edo aldatu eskaera abuztuaren 20a baino lehen. Informazioa eguneratu ondoren, 5.364 daude erregistratuta erroldan. Horietatik 599k etxebizitza salerosteko erregimenean bakarrik eskatu dute, 4.068k alokairuko erregimenean bakarrik eta 697k salerosketa zein alokairuko erregimenean.

Salerosteko etxebizitzaren eskaera guztietatik, hau da, 1.296 (599 gehi 697) eskaeretatik, 856k Iruñean eskatu dute eta horietatik 792k BOE. Alokairu-eskaera guztietatik, hau da, 4.765 (4.068 gehi 697) eskaeretatik, 2.579k erosteko aukera ematen duen alokairua eskatu dute. Hortaz, % 76 da alokairua eskatu dutenen portzentajea, salerosketa eskatu duten eskaeren % 11ren aldean. % 13 dira bi modalitateetako eskaerak egin dituztenak.

Iaz lortutako datuen antzekoak dira aurtengoak, orduan egin baitzen erroldaren [lehen arazketa](#). 679 eskaera baztertu ziren (10 kendu ziren salerosketen eskaeren zerrendatik eta 673 alokairuen eskaeren zerrendatik). Ondorioz, 5.999 eskaera geratu ziren alokairuen kasuan eta 1.186 eskaera salerosketen kasuan, hau da, eskaera guztien % 83,49.

Aurten eta iaz, erroldatik kendu diren eskaera gehienak (302tik 263 2014an eta 679tik 673 2013an) alokairuenak dira. Horrek esan nahi du egonkorragoak direla salerosketen eskaerak, alokairuen eskaerak, batik bat, Nafarroan aldi baterako bakarrik daudenenak direlako.

Errolda araztearen helburua sistema dinamiko eta eguneratua izatea

da, etxebizitza babestuen eskatzaileen eta eskatzen denaren profilak unero zeintzuk diren jakiteko; hala, etxebizitzaren alorreko politika publikoak modu eraginkorragoan diseina daitezke.

Hurrengo esleitze-prozesua: irailak 1

Hurrengo esleitze-prozesua datorren irailaren 1ean hasiko da, ezarritako hiruhilekoko datei jarraiki, hau da, urteroko martxoak 1, ekainak 1, irailak 1 eta abenduak 1. Prozesu horretan, Lezkairuko babes ofizialeko etxebizitzak eskainiko dira salerosketako erregimenean. Egun horietako 00:00ak baino lehen erroldan behar bezala erregistratuta dauden guztiek eskubidea dute esleitze-prozeduretan parte hartzeko.

Prozedura bakoitzean eskaintzen diren sustapenei buruzko informazioa [Nafarroako Gobernuaren etxebizitzaren atarian](#) dago denen eskura. Izena emanda dutenek sustapenen ezaugarriak kontsulta ditzakete eta, prozedura hasten denetik 15 eguneko epean, bereziki interesatzen zaizkienak aukeratu ahal izango dituzte. Erroldan izena emanda daudenek ez badute aukeratzeko bereziki promoziorik, erroldan izena ematean adierazitako lehentasunak hartuko dira kontuan.

15 eguneko epea amaitzen denean, esleipendunen behin-behineko zerrenda bidaliko da. Baremoaren zein eskatzaileek adierazitako lehentasunen emaitza izango da zerrenda horretan jasotzen direnak.

Hurrengo esleitze-prozesuan parte hartzeko interesa dutenek irailaren 1a baino lehen eman beharko dute izena Internet bidez, [aplikazio honetan sartuta](#) eta erregistroa beteta. Lehentasunak adierazi eta sinatu ere egin beharko dute, NAN elektronikoa erabilia edo igorritako beste edozein ziurtagiri digitalekin. Bestela, aurrez aurre eman ahal izango dute izena, aurrez hitzordua hartuta (012 telefonora deituta edo Internet bidez), [Iruñeko](#) zein [Tuterako](#) bulegoan.

Adinez nagusiak direnek, Nafarroako udalerriren batean erroldatuta daudenek eta bertan egoitza dutenek, eta egoitza-baimena dutenek (agiri hori beharrezkoa denean) eman ahal izango dute izena erregistroan.

Bi urtez egongo dira erregistratuta eskatzaileak erroldan. Denboraldi horretan datuak aldatu edo eguneratuz gero, bi urteko epea automatikoki berrituko da. Aldaketarik egin ezean, bi urte pasatakoan, eskatzaileak erroldatik kanpo geratuko dira.